

Arraina eta kanaberaren inguruan



Gorka Moreno
Márquez
EHU-KO IRAKASLEA

Gurean oso errotuta dago arraina eta kanaberaren inguruko metafora. Pertsona bati ez zaio arraina eman behar, kanabera eman eta arrantzatzen erakutsi behar zaio, horrela berak arrainak bere kabuz hartu ditzan. Gure gizartean oso errotuta dagoen ideia islatzen du esaldiak: enplegua da integraziorako ardatza eta ogia lortzeko bitartekoa –ogibidea–. Era berean, norberaren ardura azpimarratzen duen esaldia ere bada, eta argudio nagusietako bat da enplegua ez duten pertsonen eskaintzen zaizkien diru laguntzei kontra egiteko.

Argudio indartsua eman arren, nik behintzat gero eta zalantza gehiago ditut esaldiaren atzean dagoen ideien aurrean. Argi dago, enpleguak jarraitzen duela izaten integraziorako tresna nagusia, aldi berean gero eta ahulezia gehiago azaltzen dituen.

Lehenik eta behin, azken urte hauetan argi ikusi da jendeak kanabera erabiltzen eta arrantzatzen jakin arren, zenbaitetan ez dagoela bere esku arrainik arrantzatzea; bigarrenik, gero eta gehiago dira kanabera eskuetan arrantzatzen ibili arren arrain txikiegiak harrapatzen dituztenak; azkenik, eta ez bigarren maila batean, ezin dugu ahaztu zenbait kasutan, arrazoi bat edo bestea dela eta, inoiz kanabera erabiliko ez duten per-

tsionak ere badaudela, eta hauek ere arraina jan beharra daukate.

Metaforak alde batera utzita, sistema ekonomikoaren garai hauetan, enpleguaren prekarizazioa dela eta, gero eta gehiago dira enplegua izan eta aldi berean pobreak diren langileak –*working poors*– edota gaur egun kapitalismoarentzat erabat baztergarriak eta “erabiltezinak” diren taldeak.

Testuinguru horretan, arrainaren tamainaren arabera eztabaidatu dezakegu, baina gero eta gehiago izango dira enplegutik at nolabaiteko babes material osagarria jaso beharko dutenak –gaur egun ere gertatzen den bezala–. Arrainaren eta kanaberaren aldeko zenbaitetik hori argi eduki beharko lukete, gizarteari iruzurretan ari baitira –nahigabe, edo okerrago oraindik, nahita–.

Hori da eszenatokia eta hemendik aurrera eztabaidatzen hasi gaitzke. Abiapuntua gaur egun ditugun hainbat diru laguntza izan daitezke, hainbat pentsio motetatik hasita, langabeziaren prestazioekin edota Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren inguruan gogoeta eginez.

Era berean, Hiritartasun Oinarrizko Errenta bezalako proposamenak ere gero eta arreta gehiagorekin jarraitu beharreko ideia izango dira epe ertain eta luzera begira. ■

Ez naiz inoiz joan manifestazio batera



Edu Zelaieta Anta
IDAZLEA

Sobera dira kausak, arrazoiak, motiboak. Mundua egunero argitzen eta iluntzen duen bidegabekeriak segida ziurra izanen du bihar-munean, ziurgabetasunak gobernatzen omen gaituen aroan. Horregatik utzi zaitu hormatua gurasoen artean egindako adierazpen lasaiak: “Ez naiz inoiz joan manifestazio batera”.

Ez zara galderarik egitera ausartu –ez duzu halako konfiantzarik sumatu–, kausak, arrazoiak eta motiboak trumilka etorri zaizkizun arren. Arratsaldeko patioaren ordua bukatu eta ondoan, zalantza batek asaldatu dizu gogoia etxerako bidean: zenbat pertsona izanen dituzu inguruan

behin ere manifestazio batera joan ez direnak? Beste zalantza larriago bat etorri zaizu lehengo zalantzaren orpotik: zenbatek egingen ote dute mundualdi oso bat manifestazio batera sekula joan gabe?

Ariketa ederra –eskergea, animalekoa– izaten da bestea(k) ulertzea. Zu, berrogeiak betetakoan, manifestaziorik gabeko pertsonen bizimoduak deskubritzen hasia zara. Praktika totalak dira, inolako zirrikiturik gabekoak, uste baino gehiago eta hurbilago dauden existentziak.

Txunditua zaude ezagutzen ari zaren birjintasun horrekin. ■